


Liburuak

KRITIKA

Eta emakumeari sugeak esan zion.
Lourdes Oñederra.
Erein, 1999.
14,60 euro.



Hemeroteka

Aritz Galarraga

Hamaika urte

MENDE HASIERAKO ebento literario nagusietako bat izan zen *Eta emakumeari sugeak esan zion*: irakurleen estimu azkarra (lau edizio lehen urtean), kritikarena, sari zaparrada (Beterriko Liburua, Espainiako Kritika, Euskadi, Zilarrezko sariak), gaztelaniaratzte berehalakoa. Joseba Gabilondok gaztigitzen gaitu: ez zen bakarrik gertaera izan, “baizik eta gizarte mailako gertakizuna, guztiok ukitzen gaituen jasokera. Hain zuzen, guztiok –askotan liburua irakurri gabe– iritzi bat izatera bultzatzen gaituen gertakaria”. Pentsa, nobela horrexekin bakarrik *Zortzi unibertso*, *zortzi idazle* kanonizatzaileen sartu zuten Oñederra, Arantxa Iturbe, Castillo Suarez edota Uxue Apaolazaren aurretik, adibidez. Baina ikus dezagun, tango apokrifiko hark zioen bezala, hamaika (11) urte ez direla joaten debalde.

Haria arin jostearren, esan, eleberriak Teresa duela protagonista, senarrarekin batera W. izeneko Viena hirira, amorante ohiaren etxera egiten duen bidaia eta egonaldia, lurrikara dakarrena. Eta, Iratxe Retolazak ikusarazi bezala, bestelako lerro ohargarri askoak ugari izan arren (erbesteratze-ezina eta nahia, identitatearen auzentziaren bilaketa, denborak, hizkuntzak, emetasunak, zurtasunak sorturiko mugak), emakumearen hutsunea dugu hemen gai, gailen, gizonetikiko bikote harremanen hutsaltasuna, komunikazio eza, Teresa emakumearen irudikapen gisa ere irakur daitekeen neurrian. Are urrunago joanda, garaiko iritzien arabera klixer mugatuak haustera iritsi zen Oñederra aipatu pertsonaiekin, euskal emakumearen irudi berri bat emateraino.

Ez dakit zehatz gauzak nola ibiliko ziren mende hasiera urrun hartan, baina kosta egiten zait pentsatzea matrimonioaren instituzioa zalantzan jartzeko zalantzak dituen, gizon aktibo-emakume panpina dikotomiarekin bueltaka dabilena, preziatuena birjintasuna dela dioena, nahiz kontra egiteko izan, nahiz planto esateko, euskal emakumearen irudi berriaren paradigma izan zitekeenik. Diskurtso horiek, ideia horien aurkako ideiak hamarkada bat, bi atzeragoko kontua zirela sinetsita nengo. Edo agian arazoa da ez zutela islarik izan euskarazko literaturan Oñederra iritsi arte. Kontuak kontu, gaur egunean, eta zorionez, gaudituta ditugu halakoak, maila teorikoan bederen, arkaikoak ere iruditzen zaizkigu literaturan. Eta ez dakit eleberrri honek atera zenean izandako harrera beroa izango lukeen gaur egunean, segur aski ez. Interesgarriagoa dena, bidenabar, gauzak hamaika (makina bat) urtean bere horretan mantentzea baino. ■

Itxaro Bordaren poemak hainbat hizkuntzatan

Euskal Itzultzaile Zuzentzaile eta Interpretan Elkarteak argitaratzen du *Senex* aldizkaria; elkarte berak antolatzen du urtero *Idazle itzultzaileen lantegian* saioa ere, zeinaren bidez urtero euskal idazle baten lana hainbat hizkuntzatan itzulzen baita. Kasu honetan Itxaro Bordaren poemak aurkituko dituzu euskaraz lehenik eta



Senex 40.
Batzuen artean.
EIZIE.
113 orrialde.

frantsesez, gaztelaniaz, katalanez eta galizieraz gero. Itzulpenak Haizea Parot, Manu Lopez-Gaseni, Pau Joan Hernandez eta Isaac Xubin itzultzaileek egindako lanaren fruitua dira. Horrez gain, Lopez-Gasenik lantegiaren historia ere kontatu nahi izan du aldizkariaren azken orrialdeetan. ■

Agirre Asteasukoaren sermoien analisisa

Arantza Ozaeta Elortzaren eskutik datorriku ikerketa sozio-diskurtsibo hau. Ikergegia, Juan Bautista Agirrerren, alegia, Agirre Asteasukoaren sermoiak dira. XVIII. mendeko euskal idazle klasikoa da Agirre, baina euskal idazle klasiko askorekin gertatzen den bezala, haren lana ez da aski ezguna gaur egun. Lagunduko zuen horretan, idazlearen obrak erlijioa izatea gai nagusi, baina Ozaetak uste du sermoioi badutela aintzat hartu beharrezko balio literarioa. Erretorika klasikoa argitan hasi zen aztertzen Agirrerren *Eracusaldiac* eta gerora Interakzio Sozio-diskurtsiboa ikusmoldetik eta metodologiatik garatu du tesia; orain Euskaltzaindiaren Iker sailean argitaratu da. ■

Agirre Asteasukoaren Eracusaldiac.
Arantza Ozaeta.
Euskaltzaindia.
348 orrialde. 18 euro.

